

ORTZADAR GARA



ORTZADAR GARA

- Araba** Eulogio Serdán 5 • 01012 Gasteiz
☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02
araba@steilas.eus
- UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa • 01006 Gasteiz
☎ 945 01 33 97 (3397)
steilas-araba@ehu.es
- Bizkaia** Nikolas Alkorta 3, lonja 13, Zabalburu • 48003 Bilbo
☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60
bizkaia@steilas.eus
- UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Gizarte Arloko Eraikina • 48940 Leioa
☎ 946 01 24 34 – 435 (2435)
steilas-bizkaia@ehu.es
- Gipuzkoa** Basotxiki 30-34 atz. • 20015 Donostia
☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27
gipuzkoa@steilas.eus
- UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina • Elhuyar Plaza 1
☎ 943 01 84 36 (8281) 📠 943 01 81 40
steilas-gipuzkoa@ehu.es
- Nafarroa** Joaquin Beunza, 4-6 behea • 31014 Iruñea
☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90
nafarroa@steilas.eus

www.steilas.eus

ORTZADAR GARA

Azala: Zaldi Eroa
Diseinu eta maketazioa: Marra
2017 Udaberria



| | | |
|----|--|----|
| 1 | ORTZADAR GARA. LGTBI+ gara | 4 |
| 2 | Sarrera | 5 |
| 3 | Helburuak | 6 |
| 4 | Haurreskolak | 7 |
| 5 | Haur Hezkuntza. Bigarren zikloa | 11 |
| 6 | Lehen Hezkuntza | 19 |
| 7 | Bigarren Hezkuntza | 27 |
| 8 | Euskaltegiak | 33 |
| 9 | Ebaluazioa | 41 |
| 10 | Eranskinak | 43 |
| 11 | Ortzadar gara? Ikastetxe LGTBI+ lagun | 53 |
| | 1. Sarrera | 55 |
| | 2. Ikastetxearen egoera aztertzeko galdera sorta | 56 |
| | 3. Ikastetxe LGTBI lagun. steil asen proposamenak | 58 |
| | 4. Ikastetxe LGTBI lagun. Irudia sortu //erabili | 59 |
| | 5. ORTZADAR GARA. Lanketarako proposamenak | 60 |
| | 6. Bibliografia. Informazio erabilgarria | 61 |

Oharrak

1. Ikastunitate honetan ariketak mailaren arabera daude sailkatuak. Edonola ere, beste maila bateko ikasleekin ere egin daitezke lanketa. Horietan guztietan bukaerako helburua bera da: Maiatzaren 17an aniztasunaren alde agertzea.
2. Ortzadar gara unitate didaktikoaz gain, ikastetxearen azterketa egiteko, bai eta aldaketak egiteko proposamen sorta ere badago jarraian. Komeni da bigarren atal hori hezkuntza komunitatearekin partekatzea denon artean ikastetxe LGTBI+ lagun izatearren.

1. ORTZADAR GARA. LGBTBI+ gara

LESBIANA

Emozionalki edo fisikoki sexu bereko norbaitek erakartzen duen emakumea.

GAY

Emozionalki edo fisikoki sexu bereko norbaitek erakartzen duen gizona.

TRANSGENEROA

Pertsona bat zeinaren genero identitatea ez datorren bat jaiotzean esleitu ziotenarekin, oker esleitu ere, genitalak aintzat harturik, ez dena nahitaez sailkatzen gizon eta emakume kontzeptu bitarren arabera.

TRANSEXUALA

Pertsona bat zeinaren sexu sentitua ez datorren bat jaiotzean esleitu ziotenarekin, oker esleitu ere, genitalak aintzat harturik.

BISEXUALA

Nahiz emakume nahiz gizonetikiko erakarpena sentitzen duena.

INTERSEXUALA

Bere genitaletan gizon eta emakumeen ezaugarriak dituen pertsona. Bere kromosoma informazioa ez dena XX edo XY sistema bitarrera egokitzen.



Cisheteroarautik kanpo dauden bestelako genero identitateak, genero adierazpenak, orientazioak eta praktika sexualak.

2. Sarrera

Azken urteotan gizartea biziki aldatu da. Eta aldaketa honek isla zuzena izan du eskoletan, eskola publikoetan bereziki. Aniztasunaren jabe gara eguneroko jardunean, eta aniztasuna mota askotakoa izan daitekeela begi-bistakoa da. Aniztasun kognitibo eta intelektual hartzen zen kontuan pasa den mendean, baina bestelako aniztasunak ailegatu ziren gure eskoletara: jatorri ezberdineko ikasleak etortzearekin batera arraza, erlijio, janari, ohitura... berriak gure eskoletan sartu dira.

Aitzitik, betidanik gure artean izan den aniztasun afektibo sexuala eta genero aniztasuna ezkutaturik izan da gizartean eta eskoletan. Azken urteotan protagonismoa hartu du aniztasun mota honek, baina gehienetan pertsona hauekiko gorrotoak sortu dituen ondorio lazgarrien ondorioz.

Ezagutza-erak, aurreiritziek, beldurrek, fobiek, gorrotoak LGTBI+ komunitatea baztertu, zokoratu, kikildu, mugatu, erasotu, erail... egin du. Egoerak honela, aldarrikapenen zentraltasuna hartu du LGTBI+ ikasleen babes neurriak hartzeak.

Neurri horiez gain, bestelako bidea ere jorratu behar dugu: **aniztasuna aberastasuna da**, eta eskoletan zein gizartean dagoen aniztasuna arazoa baino, aukera pedagogikoa dela sinetsi eta erakutsi behar dugu. Ez dugu uniforme den jendartean bizi nahi, aniztasunari behar bezalako gorazarrea egin behar diogulako uste sendoa dugu; bihur dezagun, bada, aldarrikapen.

LGTBI+ aldarrikapen egunen artetik, hiru dira nagusitu direnak: Martxoaren 31, Transexualitatearen Ikusgaitasun Eguna; Apirilak 26, Ikusgaitasun Lesbikoaren Eguna; Maiatzak 17, LGTBIfobiaren aurkako eguna, eta Ekainak 28, LGTBI+ harrotasun eguna. Egunotan aukera, aitzakia ederra dugu gaia aztertzeke eta helburu hezitzailetik abiatuta gaiari heltzeko.

Sexu eta genero askapenean sinetsita, urtearen egun guztietan gure eguneroko jardunean kontuan hartu behar ditugu aniztasun afektibo-sexuala eta sexu zein genero aniztasuna: hizkeran, jarreran, erantzunetan... Xede honek irakaskuntzan ere bestelako hausnarketak eta erronkak dakartza: ezkutuko curriculumak, norberaren genero ereduaren azterketa, hizkeraren erabilera...

Anitzak gara pertsonak, eta anitzak ere koloreak. LGTBI+ mugimendua bera era anitza da. Denek ezaugarri bat komuna: heteroarautik edota cisarautatik aldentzea.

1978 urtez geroztik LGTBI+ mugimenduak bandera koloretsua du ikur, aniztasuna bera ere islatu nahian: gorputz anitzak, jarduera sexual anitzak, genero anitza, genero fluidoak...

Aniztasunaren alde agertzeko helburua du unitate didaktiko honek.


Mota askotakoak izan daitezke aniztasunak: ezagut ditzagun, gozatu, baloratu... eta bereziki horien alde agertu.



2017ko udaberria.


3. Helburuak





ORTZADAR GARA

4. Haurreskolak



Gaiaren aurkezpena

Haurreskolak genero eta aniztasun afektibo-sexuala lantzeko toki egokiak dira. Direla familiak, direla langileak, direla haurrak...aniztasuna begi-bistakoa da gure inguruan; halaber, aniztasun horrek isla izan behar du gure egunerokotasunean. Hezitzailearen eginkizunak garrantzi handia du etapa hezitzaile honetan. Aukera monokromatikoa baino, eredu bakarra agertzea alegia, aukera koloretsua agertu behar dugu, oparoa: ezberdintasunak ezagutzen eta baloratzen irakasteko une ezin egokiagoa da; denok pertsona bakanak eta errepika-ezinak garela ikusarazi behar diegu, eta horretarako irakasleok eta hezitzaileok behar adinako baliabide didaktiko izan behar dugu sexu eta genero askean hezteko, eta, bereziki, horien aniztasunari behar bezala heltzeko. Izan ere, mitoak, aurreiritziak, tabuak alde batera utzi behar ditugu haurrek erakusten dituzten genero eta joera sexual anitzen aurrean.

Maiatzaren 17ari begira aniztasunaren aldeko ekimen bat egiteko proposamena luzatzen dugu. Jarraian planteatuko dugun ariketa sorta hurren familiei ere zuzenduta dago, aniztasun horren partaide garrantzitsuak direlako.

1. Jarduera: LGTBI mugimenduaren bandera

| | |
|---------------------|---|
| Materiala: | Hatz margoak, platerak, pintzelak, esponjak, paper zuria. (24x200 neurrikoa edo). |
| Denbora: | 60-90 minutu (taldearen arabera) eguneko. |
| Taldekatzea: | Espazioaren arabera eta taldearen gaitasunen arabera. |

Banderaren 6 koloreak hartuko ditugu eta 6 egun desberdinetan banderaren zatiak margotuko ditugu. Haurreskolako talde ezberdinen (edo taldearen) aniztasun eta gaitasunen arabera egokitu ahal izango da ekintza hau.

1. Eguna **Lehenengo kolorea, gorria**

Gela (edo erabiliko duzuen espazioa) paper zuriaz estaliko dugu. Familiei jardueraren berri emango zaie. Umeak Haurreskolara bodi zaharra jantzita etortzeko eskatuko zaie, baita bodi garbia ekartzeko ere (gero aldatzeko).

Gela erdian atzamar margo gorriaz beteriko platerak ipiniko ditugu, eta, platerekin batera, pintzel lodiak eta esponjak. Umeei papera margotuko dugula adierazi ostean, horretarako bai pintzelak, bai eskuak eta baita esponjak ere erabili ditzaketela gogoratuko diegu.

Umeak margotzen bukatzen dutenean (bere erabakiz edo ekintza amaitutzat ematen duzuelako), bodia erantzi, haurrak garbitu eta jantzi egingo ditugu. Gehien margotuta dagoen paper zati laukizuzen handiena eta luzeena lehortzen utziko dugu. Era berean, bodiak lehortzen utzi, 2. egunean erabili ahal izateko (ekintza guztia bukatzen dugunean bodiekin azken ekintza bat egingo dugu, ez ahaztu!).

Egunero argazkiak ateratzea proposatzen dizuegu, ekintzaren garapena ikusteko, eta, bukaeran, mosaiko polit bat sortzeko.

Egun bakoitzean girotzeko abesti bat erabiltzea da ideia. Lehen:

True Colors <https://www.youtube.com/watch?v=la0-5QFLr14>

2. Eguna **Bigarren kolorea, laranja**

Aurreko egunean egindakoa errepikatuko dugu. Jardueraren bukaerarako kanta, berriz, **Irri egiten duenari** (Pirritx, Porrotx eta Mari Motots).

Irri egiten duenari

<https://www.youtube.com/watch?v=D8PwToIG30U&list=RDD8PwToIG30U>

Gogoratu: Gehien margotuta dagoen paper zati laukizuzen handiena eta luzeena lehortzen utziko dugu, eta, argazkiak ateratzen jarraitu.

3. Eguna **Hirugarren kolorea, horia**

Aurreko egunetan bezala jardungo dugu, hori kolorea gehituz. Jardueraren bukaerarako kanta, **Somewhere over the rainbow**.

Somewhere over the rainbow

<https://www.youtube.com/watch?v=V1bFr2SWP1I>

Gogoratu: Gehien margotuta dagoen paper zati laukizuzen handiena eta luzeena lehortzen utziko dugu, eta, argazkiak ateratzen jarraitu.

4. Eguna **Laugarren kolorea, berdea**

Lanerako, kolore berdea erabiliko dugu oraingoan. Bilduma osatzen joateko, **What a wonderful world** abestia erabili dezakegu, besteekin batera:

What a wonderful world

<https://www.youtube.com/watch?v=6oFbw7RYwxg>

Gogoratu: Gehien margotuta dagoen paper zati laukizuzen handiena eta luzeena lehortzen utziko dugu, eta, argazkiak ateratzen jarraitu.

5. Eguna **Bosgarren kolorea, urdin argia**

Urdinaren txanda iritsi da. Bildumarako, 5. abestia, **Izar**.

<https://www.youtube.com/watch?v=S28DQHdirWQ>

Gogoratu: Gehien margotuta dagoen paper zati laukizuzen handiena eta luzeena lehortzen utziko dugu, eta, argazkiak ateratzen jarraitu.

6. Eguna

Seigarren kolorea, morea

Ekintzari amaiera emateko more kolorea aukeratu dugu, eta, **Izarren hautsa** abestia.

<https://www.youtube.com/watch?v=7kWNWjL18RM>

Gogoratu: Gehien margotuta dagoen paper zati laukizuzen handiena eta luzeena lehortzen utziko dugu, eta, argazkiak ateratzen jarraitu.

7. Eguna

Hasieran aipatu bezala, haurren bodiak erabiliko ditugu bukaeran. Ikasgelan edo pasabidean hedatu ahal ditugu, matxardak (pintzak) erabilia edo beso batetik soka bat sartu ondoren, bestetik aterata; bodi guztiak segida batean jarri ondoren eskegi toki ikusgarri batean.

Ateratako argazkiak erabiliz, mosaiko bat sortu. Argazkiak edonolakoak izan daitezke, baina hori bai, koloretsuak ezinbestean.

2. Jarduera: Herri Berri ipuina

Materiala: Herri Berri ipuina. 1. eranskina.

Denbora: 10-15 minutu.


Taldekatzea: Talde txikia, talde handia...

6 koloreez gure ortzadarra osatu ostean, maiatzaren 17a egun berezia bilakatu dezakegu. Egun honetarako, Herri Berri ipuina kontatuko dugu.

Ipuina kontatu ondoren aurreko egunetan margotutako paper zatiak aterako ditugu, eta, haurreskolako sarreran batuko ditugu ortzadar bandera eratu eta ikusgai jartzeko.


https://issuu.com/stee-eilas/docs/lgtb_ud





ORTZADAR GARA

5. Haur Hezkuntza Bigarren zikloa



Gaiaren aurkezpena

Haur hezkuntzako 2. zikloari genero aniztasuna eta aniztasun afektibo-sexuala lantzeko oso **esparru proposa** deritzogu. Haurrak inguratzen dituen munduaz jabetzen hasiak dira aurretik ere eta **guztia dute euren**ganatzeko. Horregatik uste dugu bereziki garrantzitsua dela adin tarte honi ere dagokion protagonismoa ematea gai hau lantzerako orduan.

Beraz, haur hauekin ere **Maiatzaren 17ari** begira jartzea proposatzen da, aniztasuna eta berdintasunaren aldeko urratsak ematen jarraitzeko. Haur taldearen adina kontuan hartuta, gainera, ezinbestekotzat jotzen dugu **familien inplikazioa** eta parte-hartzea. Nolabait, familiak ere egun honetan protagonista izan daitezen egin behar dugu lan, beraien inplikazioa lortzeko.

Haurrekin egiten dugun lana zein izango den, eta, zergatik egiten dugun azaltzea oinarritzkoa da, bai eta ikusgai jartzearen arrazoia ere.

Horretaz gain, Haur Hezkuntzaren ziklo honetan ohikoa izaten da familia lantzea. Horien eguna maiatzaren 15ean da. Horren lanketa eginez gero, **FAMILIAK** landu, hots, aniztasunaren ikuspuntutik. Zuen ikasgelan eta ikastetxean mota askotako familiak daudelako uste osoa dugu. Izan kontuan.

Hemen aurkezten ditugun jarduerak 3, 4 zein 5 urteko haurrekin egiteko modukoak dira, baina beti ere, taldearen aniztasunaren arabera, ariketak egokitu ahal dira.

1. Jarduera: Aurkezpena

| | |
|---------------------|---|
| Materiala: | LGTBI+ bandera, banderaren argazkia, unitatearen azala. |
| Denbora: | 10 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia, talde handia. |

Galderak egingo dizkiegu haurrei:

- Ba al dakizue zer den hau?
- Ikusi al duzue inoiz halako banderarik/argazkirik?
- Zenbat kolore dira?
- Zein kolore ikusten dituzue?
- Gustatzen al zaizkizue koloreak?
- Zein da gehien gustatzen zaizuen?
- ...

Behin tarte bat emanda galde-erantzunetan, unitate didaktikoaren kartela erakutsiko diegu, eta zer ikusten duten galdetuko dugu.

Galdera hau egingo diegu ezinbestean: nola daude pertsona hauek? Triste al daude? Ala, pozik? Zergatik daude horrela?



2. Jarduera: Gure ortzadarra sortzen

| | |
|---------------------|---|
| Materiala: | Margoak, ontzi handiak, platerak, pintzelak, paper zuria, pareta zuria. |
| Denbora: | 30-45 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia, talde handia. |



Hasierako aurkezpena eta gero, hurrei galdetuko diegu: **nahi al duzue zuek ere ortzadarra izan? Nahi al duzue ortzadar handi bat margotu?** Orduan, euren gorputza erabilita, eskuak, oinak... martxan jarriko gara. Beraien eskura utziko ditugu koloreak: gorria, laranja, horia, berdea, urdina eta morea (ontzi handietan, nahikoa leku izan dezaten guztiek). Eskolako pareta txuri bat edo gelako txoko bat horretarako prestatuko dugu, lurra eta paretak paperarekin estalita. Paperari nahikoa margotuta dagoela pentsatzen dugunean, **"Ortzadarra gara"** idatzi dezakegu gelan/eskolan ikusgai jarri aurretik. Argazkiak aterako ditugu, ekintzan zehar eta bukaerako emaitzarekin.

Familiak, partaide sentitu daitezten, gonbidatu ahal ditugu, edo, argazkiekin erakusketa txiki bat antolatuko dugu gelan, pasabidean...

Ortzadarra ikusgai mantenduko dugu nahi dugun beste denboraz. Zergatik daude horrela?

3. Jarduera: Koloreen/objektuen aniztasuna islatzen. Kolore askotarikoak gara

| | |
|---------------------|---|
| Materiala: | aurrez margotutako ortzadarra, kolore ezberdinetako materiala/argazkiak/fitxak. |
| Denbora: | 30-45 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde handian. |

Aurrez margotutako ortzadar handia oinarri hartuta, kolore horietako materiala, objektuak, janariak, jolasak... zerrendaraten hasiko gara: **zer da gorria? Zer da horia? Zer da berdea?**, edo (prest izango ditugun fitxak/argazkiak erabiliz), **Marrubia zein koloretakoa da? Eta kamioia? Itsasoa ze koloretakoa den badakizue?...** **Ortzadarra objektu hauekin betetzen hasiko gara** (lurrean jarrita edo paretan zintzilikatuturik hauek itsatsiz, adibidez), **aniztasun hori islatuz**.

Hurrei beraiei utziko diegu, nola ez, fitxak edo argazkiak dagokien kolorearekin lotzen.

Garrantzitsua da ahalik eta aberatsena eta erakargarriena izatea egiten dugun aukeraketa, **edozein gauza/material/objektu edozein koloretakoa izan daitekeela** erakutsiz. Adibidez, kolore ezberdinetako sagarrak, autoak, baloiak, edalontziak... erabili ditzakegu.

Behin guztia sailkatuta, kolore bakoitzarekin erlazionatutako objektuei buruz galderak egiten hasiko gara.

- Marrubi gorriak jango ditugu? (Marrubiak eraman ahal ditugu hamarretakoa egiteko...)
- Zelai berdean korrika egitera joango gara?
- Azenario laranja gustatzen zaizkizue?
- Kolore morearekin margotuko dugu gaur?
- Leioa zabaldu, eta, begira, zeru urdin argia dugu gaur!
- Edalontzi horiak erabiliko ditugu gaur!



4. Jarduera: Ortzadar gara!

| | |
|---------------------|-----------------------|
| Materiala: | Koloretako arropak. |
| Denbora: | 20 minutu. |
| Taldekatzea: | Banaka, talde handia. |

Guztiok kolore askotarikoak izan gaitzkeela ikustarazteko, **familiei parte hartzeko** eskatuko diegu. Bezperan, haurrak hainbat taldetan banatu, ahal duzuen heinean, eta haur bakoitzari kolore bat egokitu: batzuk morez etorriko dira jantzita, beste batzuk gorritz, laranja, berdez, urdinez eta horiz. Guk geuk ere ortzadar txiki bat sortu dezakegu! Ikasleei argazkia egiten diegu, eta ikasleek osaturiko ortzadarra izango dugu.

5. Jarduera: Jolas librea

| | |
|---------------------|-------------------------------|
| Materiala: | Koloretako puzzleak, dorreak. |
| Denbora: | 30-45 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikian, talde handian. |



6 piezako puzzlea sortuko dugu. **6 pieza, 6 kolore**. Pieza horiek ikasgelan edo patioan ezkutatu ditugu. Puzzlearen piezak galdu ditugula esango diegu. eta, taldearen laguntza behar dugu pieza horiek aurkitzeko. Jarduera 2 zatitan banatzen da, piezak bilatzea alde batetik eta puzzleak osatzea bestetik. Nahi duzun moduan moldatu dezakegu jolasa, **nahi beste aldaera** izan ditzake-eta.

Puzzlea izan beharrean dorre bat izan daiteke, adibidez. Jolas honen **helburua** honakoa da: puzzlea edo dorrea osatzeko **pieza guztiak behar-beharrezkoak** ditugula konturatzea.

6. Jarduera: Denok beharrezkoak gara

| | |
|---------------------|---|
| Materiala: | "Aniztasunaren inguruko hausnarketa" (Reflexión sobre la Diversidad (For The Birds Original HD) bideoa. |
| Denbora: | 15 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikian, talde handian. |



Aurreko jarduerarekin lotuta, guztiok beharrezkoak garela argi erakusteko, inor ez dagoela soberan adierazteko, bideo labur hau ikustea proposatzen dugu. Helburua, haurren artean eztabaida sortzea, ezberdina izatearen inguruan hitz egitea, hausnartzea.

<https://www.youtube.com/watch?v=rUIFQrEcKsc>

7. Jarduera: Jolas Heuristikoa

| | |
|---------------------|---|
| Materiala: | Kolore ezberdinetako hainbat objektu-material; poltsak; kutxak. |
| Denbora: | 30-45 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde handian (espazio txikia izanez gero, talde txikian egiteko aukera aztertu). |



Kolore ezberdinetako materialekin osatutako jolas heuristiko saio bat prestatuko dugu, eta, hauek multzoka sailkatu, nahastu, pilatu, kutxetan sartu, dorreak egin, bota, berriro eraiki... Garrantzitsua da jolaserako erabiltzen ditugun materialak zaintzea eta ahalik eta aberats eta naturalenak izatea (egurra, oihalak, artilea...) kontzeptu ezberdinak zeharka lantzeko aukera baliatuz (berdina, ezberdina, luzea, zabala, motza, mehea, aniztasuna, kolore guztien garrantzia/beharra...). Gure esku hartzea ahalik eta minimoena izatea eskertuko dute haurrek.

Materiala aurrez prestatuko dugu, aparteko gela batean, txukun eta erakargarri, giro lasaia sortuz.

Jarduera aurrera eramango dutenak haurrak izango dira, beraz, eta, bukatutzat jotzen dugunean, kolore bakoitza banatuta jasoko dugu, dagokion poltsan/kutxan.

8. Jarduera: Psikomotrizitate saioa

| | |
|---------------------|--|
| Materiala: | Psikomotrizitaterako koltxonetak, koloretako oihalak, pilotak, jausgailuak, uztaiak, zintak... |
| Denbora: | 45-60 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde handian. |

Kolore ezberdinetako materiala dugu normalean eskuragarri, koltxonetak, oihalak, pilotak, jausgailuak... Esate baterako, oihal ezberdinak erabilia, ortzadarra osatu dezakegu oihal zati hauek zutabe batetik bestera eramanda (edo ahal dugun tokira). Antzerako zerbait sortu dezakegu koltxonetak erabilia.



9. Jarduera: Eskulanak

| | |
|---------------------|--|
| Materiala: | Artilea, kartoizko tutuak, botila hutsak, ura, tintea, arkatzak, poteak, kartulinak, pintzelak, tenperak, kortxo edo poliespaneko bolak... |
| Denbora: | 45-60 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde handian. |

Burutik pasatzen zaigun edozer gauza egin genezake plastika saio batean. Artilea eta kartoizko tutuak berrerabiliz, koloretako artilea tutu batetik bestera eramanda ortzadarra osatuko dugu, nahi dugun moduan.

Hainbat ideia:

- ▶ **Musika** instrumentuak sortu ditzakegu, erraz-erraz. Adibidez, xilofono bat!
- ▶ **Gelako materiala** jasota mantentzeko ideiak ere asko daude. Margoak gordetzeko ontzia.
- ▶ **Kartulinak**, 6 koloreak aukeratuta, taldean koloreka banatuko ditugu (nahi beste gelek hartu dezakete parte ariketa honetan). Partaideak, ordena mantenduz, errenkadan kokatuko dira, kartulinak altxatu eta ortzadar original bat osatzeko. Eskolako patioan egitea gomendatzen dugu, eta ondoren argazkiak ateratzea, ekintzaren originaltasuna islatzeko. Mosaikoa egiteko erabili ditugun kartulinak lanerako erabiliko ditugu.
- ▶ **Pintzelak eta tenperak** erabiliz, poliexpanezko edo antzerako material bateko pilotak margotuko ditugu. Pilota hauei alderik alde zulo bat egin eta gero, soka batez lotuko ditugu beraien artean. Koloreak bat bestearen ondoren ordenatuz, gure bandera osatuko dugu.



Oharra: Unitate didaktiko honen jarraian, ikastetxeen atalean, hainbat ideia agertzen da.



10. Jarduera: Koloreak eta sentimenduak lantzeko ipuinak eta kantak

| | |
|---------------------|---------------------------|
| Materiala: | Sarea, ipuinak, abestiak. |
| Denbora: | 30-45 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde handian. |

► **Koloretako munstroak.** Ipuin honek koloreak eta emozioak lotzen ditu, sentitzen dugun horri izena jarritz. Haurrekin batera bideoa ikusi dezakegu eta ondoren galdera-sorta txikia prestatu, bideoan ikusi dituzten kolore eta emozioak zeintzuk izan diren identifikatu eta hauei buruz hitz egiteko. Bestelako aukera da zuk zeuk irakurtzea ipuina.

<https://www.youtube.com/watch?v=GBsQQ5fxyDY>

Egin ditzakegun galderak:

- Zein koloretakoa da ipuineko munstroa?
- Zein koloretakoak dira munstroak?
- Zein koloretakoak gustatzen zaizkizue gehien?
- Zein koloretakoak ematen du beldur handien?
- ...



Behin koloretako munstroak hizpide izanda, haiei koloretako munstroak margotzeko/sortzeko eskatuko diegu. Ondoren ikusgai jarriko ditugu.

► **Txominen sentimenduak.** Sentimenduak lantzen dituen ipuina da. Ipuina landu eta gero, sentimendu hauei buruzko galderak egin ditzakegu, eta, zergatik ez, sentimendu hauei bakoitza kolore batekin lotu. Esate baterako, taldeari galdetu ahal diogu "Zein koloretakoa da haserrea?", "Poztasuna zein koloretakoa dela uste duzue?", etab.

► **Neskak eta mutilak, norbera den bezalakoa.** Neska eta mutilen arteko ezberdintasunak jorratzen dituen ipuina da, neska eta mutil etiketen atzean ezkututzen diren ehunka gorputz eta eredu ezberdinak landuz. Honekin batera, ipuinarekin lan egin ahal izateko bideo bat atxikitzen dugu. Bideoa ikustearrekin batera, haur taldearekin hitz egiteko aukera duzue. Galderak eginez, beraien zalantzak argitu eta jakin mina ase egin ahal izango duzue. Gure proposamena, beraien kabuz eztabaidan sartu daitezen utzi.

<https://vimeo.com/190868280>



Neskak eta mutilak, norbera den bezalakoa. Neska edo mutil izateko dauden modu ezberdinak jorratzen dituen ipuina da, neska eta mutil izatearen etiketen atzean ezkututzen diren ehunka gorputz eta eredu ezberdinak landuz.

<http://publicacionesdidacticass.com/hemeroteca/articulo/065046/articulo-pdf>


11. Jarduera: Egin dezagun dantza!

| | |
|---------------------|-------------------------------------|
| Materiala: | Sarea, ENE KANTAK-KOLOREAK abestia. |
| Denbora: | 20-30 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikian, talde handian. |

- **Koloreak.** Bideo honek hainbat kolore lantzeko aukera eskaintzen digu. Bitan (edo nahi bestetan!) ikusiko dugu eta dantza egiteko aprobeztatuko dugu. Eta, ez ahaztu, abestiak esaten duen moduan, ... *BAINA BEHARREZKOAK KOLORE GUZTIAK...*


<https://www.youtube.com/watch?v=Xt4oBkAUFJo>





ORTZADAR GARA

6. Lehen Hezkuntza



Gaiaren aurkezpena

Euren bilakaera psikologikoa garatzen ari diren adin tarte honetan, munduaren ikuskera zabala edo estua sortuko zaie ikasleei ezagutzen dituzten aukeren arabera. Estereotipoak uxatzea eta gainditzea izango dugu erronka. Eguneroko jardunean aniztasuna agertzeaz gain, erreferente positiboak aurkeztu behar ditugu.

Modu transbertsanean zein zuzenean landu behar ditugu aniztasunak: gustuak, joerak, ohiturak, jatorriak, gorputzak, maiatzeko moduak ... aberastasuna dela sinetsita, horiekiko guztiekiko errespetu eta errekonozimendu agertzeko gauza izan behar dute ikasleek. Bazterkeriak sortzen duen minetik baino, aberastasunetik abiatu nahi ditugu ondorengo jarduerak. Markaturiko helburuak testuinguruaren arabera moldatu behar ditugu.

Beraz, adin tarte honetan hainbat erronka ditugu: aniztasuna gutxiengo baten kontua den ideiatik aldentzea eta aniztasun mota guzkiek ikusgaitasun maila bera izatea; bazterkeria egoerak saihestea eta ematen direnean gainditzeko baliabideak izatea; LGTBI+ ikasleei besteen aurrean diren bezalakoak agertzeko giro segurua bermatzea.

Maiatzaren 17a LGTBIfobiaren aurkako nazioarteko eguna da eta egun horretara begira, maiatzeko aste horretan zehar, zerbait antolatzeke asmoa dugula azalduko diegu ikasleei. Aniztasunari ikusgaitasuna ematea, eta gainontzeko ikaskideen aurrean sentsibilizazioa lantzea izango du helburu aste guztiko ekintzak.

Aurkezpen jarduera: Ideia zaparrada

| | |
|---------------------|--------------------------------|
| Materiala: | Unitatearen azala eta arbela. |
| Denbora: | Saio bat. |
| Taldekatzea: | Talde handia eta talde txikia. |

Deskribapena:

- ▶ Gaiari sarrera emateko, irakasleak unitatearen azala erakutsiko du.
- ▶ Galdera luzatuko du: zer ikus dezakegu kartelean?
- ▶ Talde txikietan galderari erantzungo diote. Idazkari bana izendatuko da eta ateratako hitz edo ideiak jasoko ditu.
- ▶ Erronda bat egingo da eta botatako ideien zerrenda egingo dugu: idazkari bakoitzak ideiak denon aurrean azalduko ditu eta arbelean idatziko ditugu.
- ▶ Arbelako ideiak aztertuko ditugu eta talde handian interpretazioa egiten saiatuko gara.
- ▶ Ondorioak aterako ditugu:
 - Zuen ustez, unitatearen azalak zer aldarrikatu nahi du?
 - Aldarrikapen hauek beharrezkoak al dira?

Lehenengo saioa: Ortzadarra

| | |
|---------------------|---|
| Materiala: | Koloretako orriak, itsasteko zinta, arbela, ipuinak, puxikak, guraizeak, arkatza, A3 orriak ... |
| Denbora: | Sei saio. |
| Taldekatzea: | Talde txikia, talde handia eta banaka. |

Deskribapena:

1. Launaka jarriko dira eta talde bakoitzari ortzadarrak dituen zazpi koloretako orriak banatuko zaizkie. Ondoren, honako galderak luzatu ahal dizkiegu:
 - ▶ Zein koloretakoak dira mahai gainean dituzuen orriak?
 - ▶ Inoiz ikusi al duzue horrelako kolorerik? Non? Zertan?
 - ▶ Zer datorkizue burura koloreok ikustean?
 - ▶ Zerbait osatu dezakegu kolore guztiak batera erabiliz?
 - ▶ Ditugun koloreekin ortzadarra osatu dezakegu, ezta?
 2. Laukote bakoitzak kolore guztietako karratutxoak moztuko ditu eta ortzadarra eratuko du A3 orri batean.
Gogoratu: moztutako karratutxoetatik ikasle bakoitzak bat aukeratu eta bigarren saiorako gordeko du.
 3. Talde bakoitzak bere kolore ordena antolatu duenean, komunean jarri eta ortzadarraren koloreen zerrenda adostuko dugu.
- Talde bakoitzak bere ortzadarra itsatsi eta gelan zehar jarriko du.
4. Beste aukera bat: bukaerako proiekturako, taldeak erabakitzen badu horma-irudi bat egitea, denen artean ortzadar bat margotu dezakete korridorean jartzeko (adostutako koloreen ordenarekin), tenpera erabiliz. Ortzadarren azpian, astean zehar burutu dituzten lanen erakusketa egingo da.



Bigarren saioa

Deskribapena:

1. Aurreko saioan gordetako koloretako karratutxoa aterako dute eta ikasle bakoitzak aukeraketa arrazoituko du. Zerekin lotzen du kolorea?, sentimendu bat adierazi, gertakizun bat... Aukeratutako kolorezko paper bakoitzaren gainean arrazoiak idatziko ditu ikasle bakoitzak.



2. Denek idatzi ostean, koloreen arabera banatu dira eta komunean jarriko dugu idatzitakoa.



Ariketa hauen helburu nagusia ondorengoa da: haurrek ulertzea eta enpatizatzea gustu ezberdinak dauden heinean, sentitzeko eta bizipenak bizitzeko ere modu ezberdinak eta anitzak daudela. Eta denak onargarriak eta errespetagarriak direla, eta ez baztergarriak.

KOLORE EZBERDINAK-AUKERA EZBERDINAK-GUSTU EZBERDINAK-SENTIMENDU EZBERDINAK-MAITATZEKO MODU EZBERDINAK

3. Koloreen esanahia

Materiala: 2. eranskina: 1. Zikloa (6-9 urte) // 3.eranskina: 2. Zikloa (9-12 urte)

Nahasita eta moztuta, alde batetik koloreak eta bestetik koloreen esanahiak emango dizkiegu eta elkarlotu egin beharko dituzte.

Erantzunak:

| Kolorea | Letra |
|---------|-------|
| Zuria | F |
| Beltza | D |
| Gorria | J |
| Laranja | A |

| Kolorea | Letra |
|---------|-------|
| Berdea | I |
| Marroia | G |
| Urdina | H |
| Purpura | C |

| Kolorea | Letra |
|---------|-------|
| Arrosa | B |
| Grisa | K |
| Horia | E |

Talde handian komunean jarriko ditugu erantzunak. Loturak egin ostean, bigarren jardueran jarritako arrazoiak eta koloreen arteko erlazioak aztertuko ditugu.

4. Premisa ezberdinak erabiliz, taldekatze ezberdinak eratuko ditugu. Ikasle bakoitzak, txandaka, taldekatzeko irizpide bat esango du eta denak banatuko dira irizpidearen arabera. Ikasleek adosten duten bitartean irakasleak musika jarriko du. Musika gelditzen denean taldea banatuta egon beharko da. Irakasleak taldekatzeko irizpidea asmatu behar du.


- ▶ Altuak eta baxuak.
- ▶ Illearen kolorearen arabekoak.
- ▶ Arropa kolorearen arabera.
- ▶ Kirola gustuko dutenak eta ez dutenak.
- ▶ Etxean afaria prestatzen laguntzea gustuko dutenak eta ez dutenak.
- ▶ Beren ohea egiten dutenak eta ez dutenak.
- ▶ ...

Hirugarren saioa

Deskribapena:

1. Behean agertzen diren bi liburuetako ipuin bat aukeratuko dugu eta istorioa kontatuko dugu: argitaletxearen arabera neskentzat Edurnezuri, Printzesa eta ilar alea. Eta mutilentzat Hansel eta Gretel txokolatzeko etxean, Erpurutxo, Barbantxo...

- ▶ Nori gustatu zaio ipuina? ▶ Nolako ipuinak gustatzen zaizkizue?



2. Liburuen azala erakutsi eta galdera batzuk luzatuko dizkiegu:

- ▶ Zergatik egiten da bereizketa? ▶ Bereizketa hau egokia da? ▶ Zer iruditzen zaizue?



3. Kanta: Kantu kolore-Zazpi kolore. Materiala: 4. eranskina

Kantu hau entzun eta ikusiko dugu: **Kantu Kolore – Zazpi Kolore**. Binaka/launaka taldekatuta, emozioen zerrenda idatzita, moztuta eta nahastuta emango diegu alde batetik. Eta koloreak idatzita eta moztuta bestetik. Bideoa ikusi eta entzun bitartean, aipatzen diren kolore eta emozioak ordenatu eta antolatuko beharko dute. (2. zikloko ikasleek zuzenean idatziko dituzte emozioak abestia entzuten duten bitartean).

4. Bilatu zure bikotekidea: Materiala: txartel txikiak

Aurreko ariketan atara diren emozioak txarteletan idatziko ditugu, bikoiztuta. Ikasle bakoitzari, sentimendu baten txartela emango diegu. Ikasleek tokatu zaien emozioak adierazi beharko dituzte gorputz-atalak erabiliz, keinuak erabiliz, hitz egin gabe. Emozio bera duten ikasleek elkar bilatu behar dute. Ondoren bikote bakoitzak besteen aurrean, emozioa adieraziko du hitzik erabili gabe, gainontzekoek asma dezaten. Bukatzeko, borobilean eseriko dira, eta ariketa egitean nola sentitu diren adieraziko dute.

- ▶ Gustatu zaizue?
- ▶ Noizbait sentitu dituzue tristura, maitasuna, alaitasuna...?
- ▶ Bestelako sentimendurik ezagutzen duzue?



Seigarren saioa

Deskribapena:

Maiatzaren 17a LGBTIfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna da eta egun horretara begira, maiatzeko aste horretan zehar, zerbait antolatzeko asmoa dugula azalduko diegu ikasleei. Aniztasunari ikusgarritasuna ematea, eta gainontzeko ikaskideen aurrean sentibilizazioa lantzea izango dute helburu aste guztiko jarduerak.

Talde txikiak osatuko ditugu euren ideiak agertzeko. Ez badute ezer proposatzen, ideia bat edo beste aurkeztuko diegu:


- ▶ Gelan sortutako ipuinen erakusketa.
- ▶ Asmatutako istorioak kartulina batean itsatsi eta irudiekin batera erakusgarri jarri.
- ▶ LGBTI+ bandera ikustean atara zitzaizkien ideiak, koloretako orrietan idatzi eta ortzadarraren gainean itsatsi.
- ▶ Mural bat osatzea egindako lanak erakusteko.
- ▶ **Animados en la diversidad** bideoa jarriko dugu ikus-entzunezko txokoan.



Oharra: Unitate didaktiko honen jarraian, ikastetxeen atalean, hainbat ideia agertzen da.








ORTZADAR
GARA

7. Bigarren Hezkuntza



Gaiaren aurkezpena

Afektibitate eta sexu-aniztasunaren aurrean gazteek zer jarrera duten jakiteko asmoz, hainbat ikerlanek agerian jarri dute ikastetxeetan oso jarrera baztertzailak daudela oraindik ere. Horrez gain, ikusten da jarrera generiko bat dagoela, pasiboa eta permisiboa LGBTIfobiarekin, aldatu beharko litzatekeena.

Ikasle kopuru esanguratsu batek aparteko ahalegina egin behar du bere genero identitate, sexualitatea eta afektibitatea oztoporik gabe bizitzeko. Norbere bizitzak zein norabide duen erabakitzen, eta etorkizun hurbilean modu autonomoan kudeatu beharko du bizitzarako prestatzen ikasten dute ikasleek.

Taldearen partaide izateak, eta onartuak, garrantzi handia du adin tarte honetan. Onartua izateko gogoak askotan norberaren izaera ezkutatzeko beharra dakar. Aniztasunak aberasten gaituela ikusaraztea izanen dugu xede.

Maiatzaren 17an aniztasunaren aldeko ekimen bat egiteko proposamena luzatzen dugu, denoi baitagokigu berdintasunaren aldeko urratsak ematea, eta aniztasuna bizitzea.

Abiapuntua: koloreak eta aniztasuna

1. LGBTI+ mugimenduaren bandera

| | |
|---------------------|--|
| Materialak: | lgtbi+ bandera / banderaren argazki handia. https://eu.wikipedia.org/wiki/LGBT_bandera |
| Denbora: | 25 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

LGTBI+ mugimenduaren bandera eramanen dugu ikasgelara (edo horren argazkia). Banderaren koloreak zein diren galdetu eta arbelean idatziko ditugu. Ondoren, taldeka, honako galdera hauei erantzunen diete:

- ▶ Zer dakizu banderaren historiaz?
- ▶ Zuen ustez, zer islatzen du banderak?



Behin tarte pasata, denon artean aztertuko ditugu erantzunak. Taldekideren batek historia ezagutu ezean, hurrengo egunerako horren informazioa bilatzeko eskatuko diegu, eta hurrengo saioaren hasiera izanen da.

Ortzadar hitzaren sinonimorik ezagutzen ote duten galdetuko diegu.

UZEIren Sinonimoen Hiztegia: iz. *Heg. beh.* Erromako Zubi, ostadar, uztargi, ostarku *Bizk.*, ostilika *jas.*

Banderaren historia: https://eu.wikipedia.org/wiki/LGBT_bandera

2. Unitatearen azala

| | |
|---------------------|-----------------------------|
| Materialak: | Unitatearen azala. |
| Denbora: | 25 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

Lauko taldeak egin ondoren, unitatearen azalaren gaineko hausnarketa eginen dutela erranen diegu: zer islatzen du?

Behin tarte bat emanda, talde handian ateratako ideiak adituko ditugu.



Galdera hau idatziko dugu arbelean:

- Noren bandera da hau?

Litekeena da Gay bandera esatea. Guk LGBTI+ pertsonen bandera dela erranen diegu. Ondoren letra bakoitzaren definizioa egiteko eskatuko diegu.



Hitz hauen definiziorako **steilas** sindikatuaren Aniztasun sexualerako gidaliburuan agertzen diren definizioak ikusten ahal dira.



3. Denok ezberdinak gara. Everyone is Different

| | |
|---------------------|--|
| Materialak: | Bideoa https://www.youtube.com/watch?v=kynUJcqRrIY |
| Denbora: | 30 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

Arbelean honakoa idatziko dugu:

- ▶ Bideoen titulua: Denok ezberdinak gara. Everyone is Different
- ▶ Zeri buruzkoa da ba bideoa?

Titulua dela jakinda, ezberdintasunei buruzko bideoa ikusiko dutela esango dute ziurrenik. Hala izanez gero, honakoa idatziko dugu:

- ▶ Zertan gara ezberdinak?

Erantzunak arbelean idatziko ditugu.


Bideoa bitan ikusiko dugu. Lehenengo aldiz ikusi ondoren lehenengo galdera errepikatuko dugu: Zeri buruzkoa da bideoa? Arbelean idatziko ditugu erantzunak.

Ondoren, honakoa idatziko dugu: bideoan agertzen direnak LGBTBI+ pertsonak dira.

- ▶ Behin hori eginda, bideoa berriro ikusiko dugu, baina eskatuko diegu bideoan agertzen diren gay, lesbiana eta transexualeen istorioei ongi erreparatzeko.

Bideoa ikusi ondoren, hirunaka/launaka eztabaida.

- ▶ Zure ustez aukera sexual guztiak berdin hartzen ditugu gure gizartean? (jarri adibideak)
- ▶ Gure ikastetxean aniztasun afektibo-sexuala aske bizitzeko aukera dago?
- ▶ Eskoletan aniztasun afektibo-sexuala lantzen dela uste duzu?
- ▶ Egoera aldatzen ari dela uste duzu?
- ▶ Inoiz aditu duzu LGBTBI+ pertsonen aurkako irainik? Non?
- ▶ Zer da LGBTBIfobia? Jarri adibideak.
- ▶ Zuen eskola garaian jazarpen kasurik ezagutu duzue?
- ▶ Zer aldarrikatzen dute LGBTBI+ taldeek?



4. Animados en la diversidad

| | |
|---------------------|---|
| Materialak: | Animados en la Diversidad bideoa. https://www.youtube.com/watch?v=E0IOQyxItBU . Sarea. |
| Denbora: | 25 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde handia. |

Buenos Aires hirian aniztasuna azaltzeko egindako *Animados en la Diversidad* bideoa ikusiko dugu. Ikusi bitartean (edo bigarren aldiz ikusten dugun bitartean) nolako aniztasuna agertzen den idazteko eskatuko diegu.



5. Koloreak eta ni. Koloreak eta gu

| | |
|---------------------|-------------------------------------|
| Materialak: | Papera (gidoia egiteko). |
| Denbora: | 20 minutu. |
| Taldekatzea: | Banaka. Talde txikia. Talde handia. |

Bost minutuko tartea emanen diegu ikasleei solasa prestatzeko. Guk hainbat konturi erreparatzeko eskatuko diegu: orokorrean gustukoak duten kolorea, arroparen kolorea, azkabalak margotzea, ilearen kolorea, ea koloreren bat egoera jakin batekin erlazionatzen ote duten...

Nola egin: launaka elkarri kontatuko diote euren harreman pertsonala koloreekin. Ondoren, taldeka ondorioak ateratzen saiatuko dira: zein kolorek daukan presentzia handien gure bizitzetan, zein izaten ahal den horren arrazoia, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunik ikusten ote duten...

6. Arrosa ala urdina?

| | |
|---------------------|-----------------------------|
| Materialak: | Papera. |
| Denbora: | 20 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

Nola egin: arbelean honakoa idatziko dugu: Arrosa = neska urdina=mutila. Egia ote?

Hirunaka. Eztabaida. Bost minutuz.

- ▶ Zergatik erlazionatzen da arrosa kolorea neskekin? Eta urdina mutilekin?
- ▶ Zer iruditzen zaizu?
- ▶ Ume batentzako arropa oparitzen duzunean arrosa eta urdina aukeratzen dituzu?
- ▶ Beti horrela izan da?

Solasteko tartea eman ondoren, talde handian era ntzun bat edo beste adituko dugu.



Oharra: beti ez da horrela izan. Eskatu taldeko hainbat ikasleri horren gaineko informazioa bilatzeko, eta, hurrengo egunean gainontzekoei kontatzeko.

Adibidez: <http://www.revistagq.com/moda/articulos/azul-para-chico-rosa-para-chica-bebe-historia/22417>

http://www.berria.eus/paperekoa/1832/038/001/2014-11-28/betidanikoa_eztabaidan.htm

7. Tratua

| | |
|---------------------|-----------------------------|
| Materialak: | La mente en pañales bideoa. |
| Denbora: | 20 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

Honakoa galdetuko diegu: Neskak eta mutilak berdin tratatzen ditugu?

LA MENTE EN PAÑALES bideoa ikusiko dugu. Behin ikusita, haien iritziak adituko ditugu.

Galdera hauetaz baliatuko gara eztabaida bideratzeko:

- ▶ Egia dela uste duzu? ▶ Ezberdin tratatzen ditugu haurrak?
- ▶ Ezberdin tratatzen gaituzte? ▶ Adibidez?

Informazio gehiago: <http://hezkeh0506.blogspot.com.es/2016/10/arrosa-ala-urdin-sexu-genero-sistema.html>

8. Ortzadar gara

| | |
|---------------------|-----------------------|
| Materialak: | Askotariko materialak |
| Denbora: | 30 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde handia. |

Maiatzaren 17a LGTBfobiaren aurkako nazioarteko eguna dela erranen diegu ikasleei eta egun horretara begira, maiatzean, zerbait antolatzeko proposamena luzatuko diegu. Hartu beharreko erabakiak:

- ▶ Zein mailatan? Ikasgelan // gure mailan // ikastetxe osoan. ▶ Zer egin.

Behin hori erabakita, abian jarriko gara.

Egiten duten lana ikastetxearen web orrian jartzea proposatuko diegu, eta, izanez gero, ikastetxearen sare sozialetan zabalduko dugu. Era berean, LGTBI+ mugimenduarekin harremana egin daiteke eta ikastetxean mintzaldi bat antolatu.



Oharra: unitate didaktiko honen jarraian, ikastetxeen atalean, hainbat ideia agertzen da. Era berean, euskaltegien atalean hainbat ariketa daude koloreak eta aniztasun afektibo-sexuala lantzeko.


9. Aniztasunak aberasten gaitu. Bideoa

| | |
|---------------------|---|
| Materialak: | Aniztasunak aberasten gaitu bideoa (Kattalingune). https://www.youtube.com/watch?v=xveg_Q67k4I |
| Denbora: | 30 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde handia. |




Bideoa behin ikusi ondoren, bi galdera hauen inguruan mintzatuko gara:

- ▶ Zertan aberasten gaitu aniztasunak? ▶ Zuen inguru hurbilean honelako zerbitzurik ezagutzen duzue?



ORTZADAR
GARA

8. Euskaltegiak



Gaiaren aurkezpena

Euskaltegiak ere genero aniztasuna eta aniztasun afektibo-sexuala lantzeko toki egokiak dira. Gainontzeko ikastetxeetan bezala, hauetantxe ere, Maiatzaren 17an aniztasunaren aldeko ekimen bat egiteko proposamena luzatzen dugu, denoi baitagokigu berdintasunaren aldeko urratsak ematea, eta aniztasuna bizitzea.

Jarraian dagoen ariketa multzoaren ondoan zein mailatan lantzen ahal den agertzen da. Gehienak A2 mailatik aurrera lantzeko aukera dago, baina, hala ere, eskakizun maila ezberdina da. Edonola ere, hezkuntza arautuan lantzeko unitate didaktiko honetan planteatzen ditugun ariketak euskaltegietan ere lantzen ahal dira.

Abiapuntua: koloreak eta aniztasuna

1. LGTBI+ mugimenduaren bandera

Maila: A2/B1/B2/C1

| | |
|---------------------|---|
| Materialak: | lgtbi+ bandera / banderaren argazki handia. |
| Denbora: | 20 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

LGTBI+ mugimenduaren bandera eramanen dugu ikasgelara (edo horren argazkia)

Banderaren koloreak zein diren galdetu eta arbelean idatziko ditugu. Ondoren, taldeka, honako galdera hauei erantzungo diete:

- ▶ Zer dakizu banderaren historiaz?
- ▶ Zuen ustez, zer islatzen du banderak?

Behin tartea pasata, denon artean aztertuko ditugu erantzunak. Taldekideren batek historia ezagutu ezean, hurrengo egunerako horren informazioa bilatzeko eskatuko diegu, eta hurrengo saioaren hasiera izanen da.

Ortzadar hitzaren sinonimorik ezagutzen ote duten galdetuko diegu.

UZElren Sinonimoen Hiztegia : iz. *Heg. beh.* Erromako Zubi, ostadar, uztargi, ostarku *Bizk.*, ostilika *jas.*

LGTBI+ banderaren historia: https://eu.wikipedia.org/wiki/LGBT_bandera




2. Banderaren koloreak

Maila: A2/B1/B2/C1

| | |
|---------------------|-----------------------------|
| Materialak: | Arbela |
| Denbora: | 20 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

Denon artean zerrendatuko ditugu, eta bata bestearen azpian idatziko ditugu arbelean. Ondoren tarte bat emanen diegu kolore horiek zerekin erkatzen duten idazteko (objektuak, adjektiboak, sentimenduak...).

| | |
|--------------------|---|
| GORRIA | TOMATEA, BIHOTZA, MARIGORRINGOA, ODOLA... |
| LARANJA | LARANJA, BUTANO-BONBONA, |
| HORIA | BANANA, EGUZKIA, BITXILOREAK... |
| BERDEA | HOSTOA, BELARRA, |
| URDIN ARGIA | ZERUA, ITSASOA, |
| URDIN ILUNA | PRAKA, ILUNABARRA... |
| MOREA | LILI LOREA |



Talde aurrean hainbat galdera eginen dugu:

- ▶ Zein koloretakoak dira ametsak? Eta mina? Eta itxaropena?...

3. Koloreak eta esapideak

Maila: A2/B1

| | |
|---------------------|-----------------------------|
| Materialak: | Arbela |
| Denbora: | 20 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

Banaka. Tarte bat eman erkatzeko. Ondoren, talde handian, aukerak aztertu.

| | |
|------------------|------------------------|
| PATATA | |
| BEHAR | |
| ILEA | |
| MISERIA | |
| KALE | BELTZA/BELZTU |
| NEGU | GORRIA /GORRITU |
| BURUA | ZURIA/ ZURITU |
| LOTSA | URDINA/ URDINDU |
| IKUSI | |
| FRUTA | |
| ETORKIZUN | |
| ... | |

Esaldiak egiteko eskatuko diegu ikasleei.

6. Arrosa ala urdina?

Maila: A2/B1/B2/C1

| | |
|---------------------|-----------------------------|
| Materialak: | Papera (gidoia egiteko). |
| Denbora: | 20 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

Arbelean honakoa idatziko dugu: Arrosa = neska urdina=mutila. Egia ote?

Hirunaka. Eztabaida. Bost minutuz.

- ▶ Zergatik erlazionatzen da arrosa kolorea neskekin? Eta urdina mutilekin?
- ▶ Zer iruditzen zaizu?
- ▶ Ume batentzako arropa oparitzen duzunean arrosa eta urdina aukeratzen dituzu?
- ▶ Beti horrela izan da?

Solasteko tarte eman ondoren, talde handian erantzun bat edo beste adituko dugu.



Oharra: beti ez da horrela izan. Eskatu taldeko hainbat ikasleri horren gaineko informazioa bilatzeko, eta, hurrengo egunean gainontzekoei kontatzeko.

Adibidez: <http://www.revistagq.com/moda/articulos/azul-para-chico-rosa-para-chica-bebe-historia/22417>
http://www.berria.eus/paperekoa/1832/038/001/2014-11-28/betidanikoa_eztabaidan.htm

7. Arrosa ala Urdina. Irakurriaren Ulermena

Maila: B1/B2

| | |
|---------------------|---|
| Materialak: | HABE 1. Mailako azterketa. A erdua. http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/azterketa_deialdiak/eu_ataria/adjuntos/proba_ereduak_1_maila/1maila_2010_10_irakurmena_eta_idatzia.pdf |
| Denbora: | 40 minutu. |
| Taldekatzea: | Banaka. Talde txikia. Talde handia |

Etxean edo ikasgelan. Behin ariketa bukatutik, denon artean zuzenketari helduko diogu

8. Txanogorritxo txupagorritxo bihurtu zenekoa

Maila: A2/B1/B2/C1

| | |
|---------------------|--|
| Materialak: | Papera. |
| Denbora: | 30 minutu idazteko eta 15 minutu elkarri kontatzeko. |
| Taldekatzea: | Banaka. Talde txikia. |

Idazlana. Denok ezagutzen dugu Txanogorritxo ipuina. Txanoa alde batera utzi eta txupa gorria erosi du gure protagonistak. Asmatu ipuina.

Etxean eginen dute. Klasean elkarri kontatuko diote ahoz, irakurri gabe. Ikasleren batek talde handiari kontatuko dio.



9. Koloreak eta aniztasun afektibo-sexuala

Maila: A2/B1/B2/C1

Materialak: Bandera edo horren argazkia.

Denbora: 25 minutu.

Taldekatzea: Banaka. Talde txikia.

Ondorengo hitzak arbelean idatziko ditugu eta ikasleei definizioak emateko eskatuko diegu:

Lesbiana // Gay // transexuala / transgeneroa // Intersexuala // Queer

Jakin ezean. Hemen begiratu: <http://steilas.eu/files/2015/05/Genero-eta-aniztasun-sexualerako-GIDA.-STEILAS.2015.pdf> (5.orrialdea)

Hirunaka/launaka. Eztabaida.

- ▶ Zure ustez aukera sexual guztiak berdin hartzen ditugu gure gizartean? (jarri adibideak)
- ▶ Gure euskaltegia/ikastetxean aniztasun afektibo-sexuala aske bizitzeko aukera dago?
- ▶ Eskoletan aniztasun afektibo sexuala lantzen dela uste duzu? (zure garaian, zure seme-alaben eskoletan...).
- ▶ Egoera aldatzen ari dela uste duzu?
- ▶ Inoiz aditu duzu LGTBI+ pertsonen aurkako irainik? Non?
- ▶ Zuen eskola garaian jazarpen kasurik ezagutu duzu?
- ▶ Zer aldarrikatzen dute LGTBI+ taldeek?

10. Aniztasunaren aldeko dekalogoia

Maila: A2/B1

Materialak: Koloretako kartulinak.

Denbora: 45 minutu

Taldekatzea: Banaka. Talde txikia.



Honakoa planteatuko diegu ikasleei: zure euskaltegia (edo ikastetxea) abegikorra izatea nahi duzu, eta genero aniztasuna edo aniztasun afektibo-sexuala askatasunean bizitzea nahi duzu.

Hamar puntuko dekalogoia prestatuko dute talde txikian. Argazkiren bat ere gehitzeko aukera aipatu. "Hemen..." "ezin da..." "... ahal da". Talde handian adituko ditugu. Ondoren, pasabidean (edo ikasgelan) jarriko ditugu.


11. LGTBI+ Mugimenduaren Berri

Maila: A2/B1/B2/C1

| | |
|---------------------|-------------------------------------|
| Materialak: | Kartulinak, errotulagailuak. Sarea. |
| Denbora: | 40 minutu. |
| Taldekatzea: | Banaka. Talde txikia. |

Hainbat afixa eginen dugu taldekideei horren berri emateko.

Proposamenak (*bestelakoak ere izan daitezke*)

| | |
|--|---|
| Triangelu arrosa  | Urriak 20 |
| Triangelu beltza  | LGTBIQ bandera |
| Queer | Stonewall |
| LGTBI+ | Trans-en Bandera (historia...) |
| Maiatzak 27 | Hainbat pertsona LGTBIn bizitza: Lorca, Cernuda, Virginia Woolf, Catalina Erauskoa... |
| Ekainak 28 | ... |

Kartulina banatan gaiotako bat agertuko dute. Argazkiak gehitzeko aukera emanen dugu.

12. Idazlana

Maila: B2/C1

Materialak: 7. eranskina (afixa).

Idazlana. Hiru aukera emanen zaizkie ikasleei. Horietako bat aukeratu ondoren, idazlana eginen dute etxean.

- Zure haurraren eskolako iragarki taulan **bizi aniztasuna!** afixa jarri dute. Bi pertsonak kexa agertu dute zuzendaritzan ez baitute egoki ikusten ikastetxe batean honelakorik jartzea. Eskolako aldizkarian horren inguruko hausnarketa idaztea pentsatu duzu.
- Emakumea zara eta beste emakume batekin bizi zara. Eskolara joan eta inprimakian aita/amaren datuak eskatzen dituzte, bi ama agertzeko aukera eman gabe. Ikastetxeko zuzendariari eskutitza idatziko diozu aukera hori eman dezaten.
- Ekainaren 28a gero eta hurbilago dago. Aniztasunaren aldeko ekimen bat proposatu nahi duzu Udalean: eskola aurreko zebraidea ortzadar bihurtzea. Alkateari bilera eskaera luzatuko diozu, horren berri emateko.



13. Ortzadar gara

Maila: A2/B1/B2/C1

| | |
|---------------------|-----------------------------|
| Materialak: | Unitatearen azala. |
| Denbora: | 40 minutu. |
| Taldekatzea: | Talde txikia. Talde handia. |

Ikasleek, taldeka unitatearen azalari erreparatuko diote. Zer ikusten duten, zer iradokitzen ... Kartelaren deskribapena egingen dute binaka edo talde txikian.

Aniztasunaren aldeko ekimena egitea pentsatu duzue. Maiatzaren 17ko data buruan dugu eta egun horri begira zerbait prestatu.

Hartu beharreko erabakiak:

- ▶ Zein mailatan? Ikasgelan // gure mailan // ikastetxe osoan.
- ▶ Zer egin.

Behin hori erabakita martxan jarriko dira.

Egiten duten lana ikastetxearen web orrian jartzea proposatuko diegu, eta, izanez gero, ikastetxearen sare sozialetan zabalduko dugu. Era berean, LGTBI+ mugimenduarekin harremana egin daiteke eta euskaltegian /ikastetxean mintzaldi bat antolatu.



Oharra: unitate honen jarraian, ikastetxeen atalean, hainbat ideia agertzen da.

Bestelako baliabide didaktikoak: <http://www.ikasbil.eus/>

Adibidez:

B2: "Maiatzaren 17a, Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna" "sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren aldekoak eta sexu aldaketaren aldekoak dira gazte gehienak" "..."

Genero eta aniztasun sexualerako gidaliburua. <http://steilas.eus/category/gaiak/lgtbi/>

Telebistako saioa: Ur handitan. Transexualitatea:

<http://www.eitb.tv/eu/bideoa/ur-handitan-2-denboraldia/5762/126887/transexualitatea/>

9. Ebaluazioa

Unitatearen kartelarekin edo ortzadar banderarekin egingo dugun lehen jarduera baliagarri suertatuko zaigu lehen ebaluazio bat egiteko eta ikusteko ea zer-nolako jarrera agertzen duten ikasleek sexu edota genero aniztasunaren aurrean; hala, errazago jakingo dugu ea gaiaren zer alderdiri heldu behar diogun sakonago. Unitatea egin bitartean, etengabeko ebaluazioa egingo da, horretarako, zuzenean eta modu sistematikoan behatuko dira ikasleen hitz-hartzeak eztabaidetan eta talde handian konpartitzean, bai eta zer-nolako jarrera daukaten materialak egiten ari direnean. Unitate didaktikoa amaitzean, ikasleen bakarkako lana eta taldeko lana baloratuko da, markatutako irizpideen arabera. Jarduera guztien ostean, jarduera ebaluatuko da, eta baloratuko da ea zerk funtzionatu duen eta zerk ez, espazioa, denborak, motibazioa, taldeak... Hori guztia kontuan hartuko dugu unitatearen garapen-prozesua birmoldatzeko eta egokitzeko.

Ebaluazio-irizpideak

- ▶ Jakitun da gure jendartean aniztasun afektibo-sexuala eta genero aniztasuna dagoela.
- ▶ Jakitun da zenbait pertsonak jarrera negatiboa agertzen duela aniztasun afektibo-sexual eta genero aniztasunaren aurrean.
- ▶ Norberaren eta besteen sexu eta genero aniztasuna errespetatzen du.
- ▶ Bere eta besteen ezaugarri indibidualak baloratzen eta estimatzen ditu.
- ▶ Aniztasuna modu positiboan hartzen du.

Ebaluazio-teknikak

- ▶ Behaketa eta Solasaldia egiteko gidoia.


Ebaluatzeko tresnak

- ▶ Irakasleek jarraipena egitea egunero.
- ▶ Ikaslearen historia. Historia horietan bilduko dira hala ikaslearen lanaren balorazioa, nola ikaslearen lan esanguratsuenen hautaketa bat eta unitatearen prozesu osoan egindako ahozko ekarpenak.
- ▶ Egindako lanak.

Ikasleen ebaluazioa. Solasaldia egiteko gidoia


- ▶ Zer gustatu zaien gehien eta zer gutxien.
- ▶ Zer ikasi eta deskubritu duten.
- ▶ Zerk eman dien arreta gehien.
- ▶ Zer aldatuko luketen prozesu honetan.





ORTZADAR GARA

10. Eranskinak



1. eranskina

► Herri berri

Bazen behin, Herri Gorri deituriko herria. Herri Gorriko biztanle guztiek, sudur gorria zuten. Bertan bizitzea nahi zuen edonork sudur gorria izan behar zuen, derrigorrez. Herri Gorrin, triste bizi ziren.

Herri Gorri ondoan, bazen beste herri bat. Herri Laranja deitzen zen, eta bertako laguntxoek belarri handiak eta laranjak zituzten. Herri Laranjan ezin zen belarri laranjak ez zituen inor sartu, eta, hemen ere, jendea triste bizi zen.

Pixka bat urrutiago, jendea Herri Horian bizi zen. Zapata horiak jantzi behar zituzten hemen bizi ahal izateko, eta, Herri Horian ere, oso triste bizi ziren


Handik oso gertu, Herri Berdea zegoen, eta bertan, jende guztiak esku berdeak zituen. Herri Berdean ezin zen esku berderik ez zuen inor sartu; han ere, jendea triste-triste bizi zen.

Mendian dagoen Herri Urdinean, berriz, pertsona guztiek ile urdina zuten. Hemen, jendea, ez zen pozik bizi.

Azkenik, errepide bukaeran, Herri Morea zegoen. Herri Morean, oso triste bizi ziren, bertan, aurpegi morea zeukan jendea sartzen zelako bakarrik.

Herri Morean triste bizitzeaz aspertu egin ziren, eta, jai bat egitea erabaki zuten. Jai honetara herri guztietako jendea gonbidatu zuten, Herri Gorri, Herri Hori, Herri Berde, Herri Laranja eta Herri Urdineko jendea! Herri Morean ospatutako jaietan hain ondo pasatu zuten denek, egun horretatik aurrera herri guztietan edozein pertsona sartzeko eta bizitzeko aukera izan zutelako, guztiak nahastuta, alaitasunez eta poz-
pozik.

https://issuu.com/stee-eilas/docs/lgtb_ud



2. eranskina

► Koloreen esanahia

(koloreak eta azalpenak moztu eta nahastuta eman)

| | |
|----------------|---|
| LARANJA | Gorriaren antzera, sugarra adierazten du kolore honek, baina baita luxua eta ospe distiratsua ere. |
| ARROSA | Kolore hau, haragiaren sinboloa da. |
| PURPURA | Kolore hori aberastasunaren ezaugarria da. |
| BELTZA | Kolore hau heriotzaren, doluaren eta ilunpearen kolorea da. Magia beltzarekin ere lotzen da. |
| HORIA | Eguzkia, argia eta urrea kolore honetakoak dira. Gehien ikusten den kolorea da. |
| ZURIA | Kolore hau garbitasunaren sinboloa da. Ustea da espirituak eta mamuak kolore honetakoak direla, ezer ezkutatzen ez duen kolorea baita. Kolore honetako banderak bakea ere adierazten du sarritan. |
| MARROIA | Kolore hau luraren eta udazkenaren adierazgarria da. |
| URDINA | Zeruaren eta uraren adierazgarria da kolore hau. |
| BERDEA | Biziaren, udaberriaren eta gaztaroaren kolorea da. Alaitasunaren eta itxaropenaren adierazgarria da. Gaur egun, ekologiaren adierazgarri ere bihurtu da. |
| GORRIA | Biziaren, odolaren, suaren, grinaren eta gerraren kolorea da. Kristauen arteko egutegietan kolore honetaz markatzen dira jai-egunak. Arriskua ere adierazten da egoera askotan. |
| GRISA | Malenkoniarekin eta goibeltasunarekin lotzen da. Baina, beltzaren eta zuriaren arteko oreka-puntu gisa, gogoetaren kolorea ere bada. |

3. eranskina

► Koloreen esanahia


(erantzunak beheko taulan idatzi)

| Kolorea | Letra | Kolorea | Letra | Kolorea | Letra |
|---------|-------|---------|-------|---------|-------|
| Zuria | | Berdea | | Arrosa | |
| Beltza | | Marroia | | Grisa | |
| Gorria | | Urdina | | Horia | |
| Laranja | | Purpura | | | |

| | |
|---|--|
| A | Gorriaren antzera, sugarra adierazten du kolore honek, baina baita luxua eta ospe distiratsua ere. Txinan eta Japonian maitasunarekin eta zoriontasunarekin lotzen dute. |
| B | Mendebaldeko tradizioan, kolore hau, haragiaren sinboloa da eta, beraz, sentsualtasunarena. |
| C | Mendebaldean kolore honek erregetza eta ahalmen inperiala adierazten ditu, baita harrotasuna, handitasuna eta justizia ere. Gaur egun ere, kolore hori aberastasunaren ezaugarria da. |
| D | Mendebaldean kolore hau heriotzaren, doluaren eta ilunpearen kolorea da. Magia beltzarekin ere lotzen da. Hinduismoan Kali, suntsipenaren jainkosa izugarria da. Txinan kolore hau iparraren eta neguaren adierazgarria da. |
| E | Eguzkia, argia eta urrea kolore honetakoak dira. Gehien ikusten den kolorea da, oharrak egiteko aproposa. |
| F | Kolore hau garbitasunaren eta perfekzioaren sinboloa da, gauza sakratuekin gehien lotzen den kolorea. Adibidez, sakrifikatu behar ziren animaliak kolore honetakoak izaten ziren. Mendebalean andregaiak kolore honetako jantziak eramaten dituzte ezkontzara, baina Asiako herrialde askotan dolua azaltzeko erabiltzen da kolore hau. Ustea da espirituak eta mamuak kolore honetakoak direla, ezer ezkututzen ez duen kolorea baita. Kolore honetako banderak bakea ere adierazten du sarritan. |
| G | Kolore hau lurraren eta udazkenaren adierazgarria da, baita ere, lur-kolorearen antzera, apaltasunaren eta gradu-beherapenarena. Erdi Aroan kolore hau doluaren kolorea izan zen. |
| H | Zeruaren eta uraren adierazgarria da, eta soseguaren, gogoetaren eta adimenaren sinboloa. Hutsa eta infinitu mugagabea ere adierazten ditu, hortik sortzen baita eta garatzen bizitza osoa. |
| I | Biziaren, udaberriaren eta gaztaroaren kolorea da. Alaitasunaren eta itxaropenaren adierazgarria da. Islamen kolore sakratua da eta kristauen artean Hirutasunaren sinboloa. Gaur egun, ekologiaren adierazgarri ere bihurtu da. |
| J | Biziaren, odolaren, suaren, grinaren eta gerraren kolorea da. Indiako eta Txinako andregaiak kolore honetako arropa janzten dute, eta zorte onaren eta emankortasunaren adierazgarria da. Kristauen arteko egutegietan kolore honetaz markatzen dira jai-egunak. Arriskua ere adierazten da egoera askotan. |
| K | Malenkoniarekin eta goibeltasunarekin lotzen da. Baina, beltzaren eta zuriaren arteko oreka-puntu gisa, gogoetaren kolorea ere bada. |

4. eranskina

► Kantu kolore – zazpi kolore



5. eranskina



6. eranskina

► Antropologia eta koloreak kulturen begietatik

Egilea: Ekain Martinez Lizarduikoa **Webgunea:** www.gaiak.net 2013/06/16

Ohio Estatuko Unibertsitateak 2012. urtean egindako ikerketa baten arabera, mundu zabaleko gizatalde desberdinok kolore berberak hautematen omen ditugu nahiz eta testuinguru eta kultura desberdinen baitan bizi. Ez hori bakarrik. Koloreak modu antzekoan sailkatu eta izendatzen omen ditugu gainera. Hala, aztertutako kultura guztietatik, eta dauden ehunka tonalitate kromatikoak kontuan harturik, gizakiok zortzi kategoriatan antolatzen omen ditugu koloreak: gorria, berdea, horia edo laranja, urdina, moratua, marroia, arrosa eta urdin berdexka. Orokortze lan hori egin izanak ez du esan nahi, ordea, salbuespenik ez dagoenik. Izan ere, badaude soilik koloreak sailkatzeko bi kategoria erabiltzen dituzten herriak. Adibidez, Indonesiako Dani etniako kideek bi kategoria bakarrik bereizten dituzte: mili tonu ilun eta hotzentsat (urdina, berdea, beltza) eta mola tonu bero eta argientzat (gorria, horia, txuria).

Koloreak eta emozioak

Koloreek gure bizitzan duten garrantzia ukaezina da. Argi dago kolorea objektuetatik jasotzen dugun oso informazio garrantzitsua izateaz gain, guregan emozio eta sentsazio ugari sorrazten dituela. Color Research and Application aldizkarian jasotako artikulu batean, munduko zenbait herrialdetan (Taiwanen, Argentinan, Alemanian, Suedian edota Espainiako Estatuan) eginiko ikerketa baten ondorioak argitaratu dituzte. Bertan diotenez, emakumeek, orokorrean, kolore argiagoak nahiago dituzte; argentinarek, dirudienek, kolore pasiboak askoz ere gustukoagoak dituzte; ikertutako gainerako herrialdeko kideek, ordea, kolore beroak nahiago dituzte...

Koloreak: tonalitate kromatiko soilak?

Askotan, kolore-hitzek ez dute soilik eta beti ezaugarri kromatikoak deskribatzen. Euskal Herrian hamaika adibide ditugu: negu gorria, oihan beltza edota sabelgorri esapideak, besteak beste. Adierazpenok ez dute inongo harreman zuzenik kolore horiekin. Beraz, ezinbestean, kolore bakoitza aztertzean, norberaren kulturaren baitan eta testuinguru jakin batean kokatu beharko dugu geure burua. Beraz, zentzuzkoa da pentsatzea munduko txoko desberdinetan koloreak interpretatzeko hamaika modu daudela. Azken batean, esan genezake koloreek gauzak adierazteko moduan eragin zuzena dutela eta herri bakoitzaren mundu ikuskerarekin zerikusi nabarmena dutela.

Hamaika adibide

Europar Batasuneko herrialde gehienetan zein azken hamarkadetako Euskal Herrian, kolore beltza gertakari eta kontu ezkorrekin zein ezbeharrekin lotu izan dugu. Ikusi besterik ez dago gertuko pertsonak hiltzen direnean, urtetan iraun duen beltzez jantzeko joera (ohitura hori galtzen ari da), edota etorkizun eskasa ikusten dugunean erabiltzen ditugun adierak: etorkizun iluna, etorkizun beltza... Wall Streeteko burtsan akzioek irabaziak dituztenean, gorakada horiek kolore berdez agertzen dira; galerak, osterak, kolore gorri. Asiako burtsetan, ordea, guztiz kontrakoa gertatzen da. Horrek adierazten du koloreek kontrako esanahia izan dezaketela. Azken batean, koloreek gure kulturarekin lotura hertsia dute, eta, beraz, gure azaltzeko moduetan eragin zuzena.

Koloreetan barrena

Denboran zehar, koloreak oso modu desberdinetan erabili izan dira kultura batetik bestera. Kultura askotan, koloreen zeregina izugarri garrantzitsua izan da eta izaten jarraitzen du adierazpen kulturalen baitan. Ez hori bakarrik; kultura ugaritan, koloreei beraiei, botere magikoak eskegiten zaizkie. Ikus dezagun gure artean, Mendebaldean alegia, koloreek duten esanahia:

Horia: poztasuna eta boterea agertzen ditu. Eguzkiarekin eta berotasunarekin lotzen da. Gure bidaia-agentziatan, adibidez, leku beroetarako bidaiak adierazteko, horia agertzen da kolore nagusi.

Gorria: indarra eta energia agertzen ditu. Arreta erakartzeaz gain, gogamena ere akuilatu egiten du. Ingalaterran, kolore gorriak mutikoen gizatasuna adierazten du. Frantziar Iraultzaz geroztik, kolore gorria ezkerreko alderdiekin eta pentsamoldeekin hertsiki lotuta dago. **Berdea:** kolore berdea lasaigarria izateaz gain, naturarekin eta itxaropenarekin erlazionatzen da. Ospitaleetan eta emozio handiak biltzen diren guneeetan erabiltzen dute kolore hori.

Urdina: gardentasuna eta freskura adierazten ditu. Gure gogamenean efektu lasaigarria eragiten du. Adibidez: eskarmentua eta jakinduria agertu nahi dituzten enpresek kolore hori erabiltzen dute.

Eta euskaldunok nola izendatzen ditugu koloreak?

- ▶ Euskalki guztietan, hitz berbera erabiltzen dugu hiru kolore nagusiak izendatzeko: beltza, zuria eta gorria. Gainerako koloreetarako, bestelako hitzak ditugu. Batzuk erdaratik eratorriak, edo izen-eskasia dela kausa, kolore horiek noren edo zeren antzeko diren azaltzen dugu. Adibidez: urdina, azula, morea, orlegia, hauts-kolorea, ogi-bihi kolorea...
- ▶ Euskaldunok "gorri" izendatzen ditugu, berez, kolore hori ez duten gauza askori. Adibidez: arrautzaren gorringoa, gure mendietako behi gorriak edo Nafarroako ardimutur gorriak izendatzen ditugunean.
- ▶ Animaliak izendatzean, aurrez aipaturiko koloreak asko erabiltzen dira. Adibidez: musu gorria, beltza...
- ▶ Pertsonen gorabeherak izendatzeko ere koloreek leku garrantzitsua dute. Adibidez: kopeta beltza, aho zuria, mihi beltza, zurikeria, larru gorritan...
- ▶ Gure haizeak ere koloreak ditu: haize gorria, haize zuria eta haize beltza.
- ▶ Soinuek ere koloreak dituzte gurean: oihu beltzak, ele zuriak...
- ▶ Beraz, euskaldunon eta koloreen arteko lotura oso estua da. Tonalitate kromatiko bat izendatzeko baino gehiagorako baliagarriak dira hitzok euskaldunen artean. Euskaldunon mundu-ikuskeraren partaide ezinbestekoak dira koloreak.

Ba al zenekien?

- ▶ Gauza, ekintza, testuinguru desberdinak azaltzeko orduan, koloreak izendatzen baldin baditugu ere, kasu askotan azalpenok ez datoz bat errealitatearekin. Hegazkinetako "kutxa beltzak" adibidez, ez dira beltzak. Kolore laranja edo horia izaten dute; Itsaso Gorria ez da gorria...
- ▶ Telebistako iragarkiak diseinatzen dituztenean, koloreen erabileraren ikerketa sakonak egiten dira, ikusleak izango direnengan sortu nahi diren emozioen arabera.
- ▶ Kontsumitzaileek koloreak zenbait usainekin lotzen dituzte: laranja pikantea da; berdea, ordea, usain gozoekin lotzen da.
- ▶ Kultura desberdinetan, kolore batzuk emozio edo sentimentu batzuekin lotzen dira, Always With Honor taldeak eta David McCandless diseinatzaileak eginiko ikerketaren arabera. Hona hemen emaitza.

Taularen jatorria: <http://www.informationisbeautiful.net/visualizations/colours-in-cultures/>

Testu osoa: <http://cmap.unavarra.es/rid=1PC2S91DT-NV9RWV-12G/ANTROPOLOGIA%20ETA%20KOLOREAK.pdf>




7. eranskina




bizi
aniztasuna!
vive la diversidad

steilas



11. Ortzadar gara? Ikastetxe LGTBI+ lagun





1. Sarrera

Hezkuntza sistemak aldaketarako eragile aktiboa behar du izan. Lehenik eta behin ikastetxeen giroa zaindu behar dugu, ezin baitugu ahaztu inguru horretan mugitzen direla beren sexualitatea eta genero identitatea garatzen ari diren gazteak, eta arraro ez sentitzen laguntzen duen ingurua sortu beharrean gaude. Gaiari bere osotasunean heldu behar zaio, aniztasunaren hamaika ezaugarriak agertu eta landu behar ditugu eta aniztasunak aberasten gaituela pentsamoldetik ekintzetara pasatu.

Gauzak honela, komeni da ikastetxearen egoeraren diagnostika egitea, hots, zein egoeratik abiatzen garen, zer nolako baliabideak ditugun (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak). Behin horien guztien azterketa eginda, ekintzetara pasatzeko tenorean izanzen gara, hau da, denon artean erabaki beharko da nolako aldaketak edota fintze lanak egin behar ditugun.

Aniztasun afektibo sexuala, genero aniztasuna eta familien aniztasuna hezkuntza komunitate osoari dagozkio, beraz, aurrera eraman nahi ditugun helburuak horiekin guztiekin partekatu behar ditugu.



Aretxabaletako Kurtzebarri Eskola Publikoko ikasle eta irakasleen ekimena.

2. Ikastetxearen egoera aztertzeko galdera sorta

Jarraian dagoen inkesta ikastetxearen egoera aztertzeko tresna erabilgarria izanen duzue. Hausnarketarako tresna izatea nahi dugu.

Behin erantzunak emanda, ikusi nolako neurriak hartu nahi dituzuen eta horretarako nolako urratsak eman behar diren. Eskuineko zutabeen lehentasunak markatzeko aukera duzue.

| | Bai | Ez | Lehentasuna |
|---|-----|----|-------------|
| 1. Ikastetxearen Hezkuntza Planak modu esplizituan bizikidetza demokratikorako balore eta ohiturak bere gain hartzen ditu. | | | |
| 2. Barne araudiak modu esplizituan homofobia eta transfobia aztertzen ditu. | | | |
| 3. Urteko Plangintzan atal jakin batean sexu, genero eta familia aniztasuna aztertzen da, eta LGBTfobiaren aurka borrokatzen da. | | | |
| 4. Tutoretza Planak sexu eta genero aniztasuna lantzen ditu. | | | |
| 5. Irakurmena bultzatzeko planak sexu, genero eta familia aniztasuna lantzeko materiala proposatzen du. | | | |
| 6. Ikastetxeak trans errealitateak bideratzeko protokoloa landuta du. | | | |
| 7. LGBTfobiari aurre egiteko protokoloak ditu ikastetxeak. | | | |
| 8. Izen-emate orriek, zirkularrek eta komunikazioek sexu eta genero aniztasuna islatzen dute. | | | |
| 9. Zuzendaritza taldeko kide batek gutxienez sexu, genero eta familia aniztasunean formazioa du. | | | |
| 10. Bada ikastetxean berdintasunerako arduradunik. | | | |
| 11. Berdintasunerako arduradunak ordutegian ordu kopuru egokia dauka zeregin horretarako. | | | |
| 12. Berdintasunerako koordinatzailea ikastetxeko lankide finkoa da. | | | |
| 13. Sexu, genero eta familia aniztasuna kontuan hartzen da ikastetxearen barne formaziorako proposamenean. | | | |
| 14. Ikastetxean LGBTI+ langileren bat agerikoa da. | | | |
| 15. Langile guztiek badakite LGBTfobiaren aurrean nola jokatu. | | | |
| 16. Komunetan eta aldageletan kabina itxiak daude. | | | |
| 17. Pasabideetan eta ikasgeletan dauden karteletan, bai eta ikastetxean sortutakomaterialetan ere, aniztasuna islatzen da (etnikoa, kulturala, gorputzena, erlijiosoa, sexuala, genero adierazpena, familiarra...). | | | |

| | | | |
|--|--|--|--|
| 18. Ikasmateriala aztertzen da sexu, genero eta familia aniztasuna bermatuta dagoela ziurtatzeko. | | | |
| 19. Ikastetxearen edo ikasgelaren liburutegian sexu, genero eta familia materialik dago. | | | |
| 20. Sexu, genero eta familia aniztasunarekin zerikusirik duen egun esanguratsuen batean lanketa berezirik egiten da (sexu eta genero aniztasunaren astea, familien eguna, Maiatzak 17...). | | | |
| 21. Sentsibilizazio eta formaziorik lantzen da LGTBI+ erakundeekin batera edota esparru jakin bateko adituekin. | | | |
| 22. Ikastetxearen barne edo kanpoko ormetan (arbeletan, komunetan, pasabideetan...) irain homofobo edo transfoborik agertzen da. | | | |
| 23. Ikasleek curriculum barruan sexu, genero eta familia aniztasuna lantzen dute ikasgaiaren batean. | | | |
| 24. Ageriko LGTBI+ ikaslerik dago ikastetxean. | | | |
| 25. Besteen begi-bistan elkarrekiko afektibitatea agertzen duen sexu bereko bikoterik ikusten da. | | | |
| 26. Seme-alabak matrikulaturik dauden LGTBI+ familien berri dago. | | | |
| 27. Ikasleei zuzendutako formazio jardueraren batean edo eskolaz kanpoko jardueraren batean neskak eta mutilak bereizten dira. | | | |
| 28. Sexu, genero eta familiaz mintzatzen denean irriak aditzen dira. | | | |
| 29. Hauek bezalako mespretxuzko adierazpenak aditzen dira: marikoi, marimutil, bollera... | | | |

Litekeena da zure ikasleren batek (edo zuk zeuk) hau bizi izana: behin ikusi ondoren, aztertu zer nolako aldaketak egin behar ditugun, eta nola landu behar ditugun aniztasunak



<https://www.youtube.com/watch?v=7hhuHdfLqDs>
MIGUEL NASCH bideoa

3. Ikastetxe LGTBI+ lagun. steilasen proposamenak

Izen-emate inprimakiak: familia guztietan ez dago aita eta ama, familia asko dira ama-ama, eta aita-aita, eta ama soila... Modu egokia bilatu behar da eredu hauei irtenbidea emateko.

Sistema bitarra gainditu. Generoa galdetuz gero, hirugarren aukera eskaini: gizona, emakumea eta besterik.

Ikastetxearen familia-bileretan: ikasturtean zehar familiekin egiten ditugun bileretan aniztasunari ematen zaion garrantzia agertu behar dugu, eta curriculumean egiten dugun lanketa azaldu.

Sexuen araberako bereizketa ez egin komunitan Honek berebiziko garrantzia du gazte transexualetan, erabili nahi ez duten komunera joan behar izaten dutelako.

Aldageletan. Gorputz guztiek onarpen maila berbera dutela sinistuta ere, adin jakin batean ikasleek ez dute honela ikusten. Gainera, esparru horretan, helduen kontroletik kanpo geratzen da hainbat egoera (arriskutsu). Halaber, berebiziko garrantzia du, gazte intersexual eta transexualen kasuan, beren gorputzak erakusteko arriskupean sentitzen direlako.

Izenak: transgeneroen kasuan, nahi duten izenaz ezagutzeko eta deitzeko eskubidea onartu. Ikastetxean nola jokatu zehazten duen protokoloa izan.

Formazioa bultzatu. Irakasle gehienek oso ongi hartzen dute gaiaren gaineko lanketa. Askok dira zenbait egoeratan nola erantzun ez dakitela, eta trebatzearen aldeko jarrera agertzen dute. Aditu. Bultzatu.


Liburutegian. Bermatu aniztasuna agertzen duen liburu sorta dagoela ikasle guztien eskura. Era berean, ikastetxeak aholkatzen dituen liburuetan ere aniztasuna islatuta dagoela bermatu.

Bultzatu ingurune inklusiboa. Eskolako paisaiak aniztasunaren ispilua izan behar du. Honek eskolako kulturaren modu positiboan eragiten du.

Hizkeraren garrantzia. Erabili BETI hizkera inklusiboa, eta erabiltzen dituzun adibideetan aniztasuna islatu, edozein arlotan, edozein adinetan, edozeinen aurrean.

Zero tolerantzia irainei, bazterkeriari, bullying-i. Ikastetxearen paisaian mezu hau agertu afixen bitartez, bai eta laguntza eskatzeko helbide, talde edo telefonoak.

Ezinbestean zaindu beharrekoak:



Administrazio publikoek baliabide ekonomikoak, prestakuntzakoak eta langileak jarri behar dizkiete ikastetxeei, lanean babesgabe eta noraezean senti ez daitezten.

4. Ikastetxe LGTBI+ lagun. Irudia sortu //erabili

Nafarroako E28J
Plataformak/Gozamenez
Programak
"HEMEN ANIZTASUN
AFEKTIBO SEXUALA MAITE
DUGU"
logoa ikastetxeetara bidali
zuten 2016an.



Euskadiko Gazteriaren
Kontseiluak (EGK) **Gune
Anitza Zigilua** aurkeztu
zuen 2016an. Proiektu
honekin bezero zein
erabiltzaileak gune fisiko
eta birtualen politikez
ohartarazten dituzten
seinaleetan zegoen gabezia
osatu nahi izan du EGK-k
aniztasunaren aldeko
konpromiso adierazten zuen
seinalea sortuz.



Zeuna aniztasunaren aldeko ikastetxea dela ikusten baduzue, jarri hori adierazten duen logoa. Erronka polita izan daiteke zuen modura egitea logo egokia.


5. ORTZADAR GARA. Lanketarako proposamenak

Ikasleekin lantzeko unitate didaktikoaren atal guztien bukaeran aniztasunaren aldeko ekimena egiteko proposamena luzatu dugu.

Zalantza izpirik ere ez dugu ikasleek guk baino irudimen handiagoa agertuko dutela ekimenean murgiltzen badira. Edonola ere, jarraian agertzen diren gehienak han eta hemen ikusitakoak dira. Etapaka banaturik egonda ere, zuek ikusi zein iradoki ikasleei, beti haiek ez badute ezer proposatzen:

Haur Hezkuntzan

- ▶ Eskuen soslaiak marraztu paperean, ondoren ortzadarraren koloreak erabili.
- ▶ Ikasleen soslaiak paper handi batean marraztu, eta ortzadarraren koloreak erabili.
- ▶ Panpin segida egin eta ortzadarraren koloreak erabili.
- ▶ Esku-haurra eta behatzak margotu eta argazkia egin.



Lehen Hezkuntzan. Bigarren Hezkuntzan

- ▶ Puxikez osaturiko ortzadarra.
- ▶ "Abaniko ortzadar" kartoizkoa edo zahar bat margotu.
- ▶ Ikastetxearen eskailera (kanpokoak edo barrukoak) erabili mezua zabaltzeko, edo, gutxienez, ortzadarra sortzeko.
- ▶ Ikastetxearen aurreko zebrabidea udalari eskatu margotzeko.
- ▶ Norberaren izena ortzadarraren koloreak erabiliz.
- ▶ Koloretako hodeiak. Barruan mezuak.
- ▶ Ikasleen argazkiak egin eta horien behean leloak erabili aniztasunaren alde.
- ▶ Ikasleen argazkiak (launaka edo). Gero gehitu komentarioak. Puxikak erabiliz.



- ▶ Ausartendako: Holi festival of colors. India <https://www.youtube.com/watch?v=xaysqwFoVOE>

6. Bibliografia. Informazio erabilgarria

Genero eta aniztasun sexualerako gida. **Steilas**.

<http://steilas.eus/2015/05/14/genero-eta-aniztasun-sexualerako-gida/>

Sexualitatearen koloreak gida. Eskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK).

<http://egk.eus/wp-content/uploads/2017/03/Los-Colores-de-la-Sexualidad.pdf>

Eskola orientazio sexualaren aurrean. Aldarte.

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/eskolaorientaziosexualarenaurrean.pdf>

Diversidad sexual y convivencia: una oportunidad educativa. Txostena.

<http://www.felgtb.org/rs/3660/d112d6ad-54ec-438b-9358-4483f9e98868/234/filename/informe-final-diversidad-y-convivencia.pdf>

Ni ogros ni princesas. Guía para la educación afectivo sexual en la ESO.

https://orientacionandujar.files.wordpress.com/2012/03/guia_no_ogros_ni_princesas1069.pdf

Hezkidetza eta aniztasuna ikasgeletan. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei zuzenduta. Gaztelaniaz.

<http://www.educacionsinfronteras.org/files/1063467>

Neskak eta mutilak. Norbera, den bezalakoa. Liburua. Vimeon.

Blogak

► Hezkidetza

<http://hezkidetzaelcarmen.blogspot.com.es/>

<http://hezkeh0506.blogspot.com.es/2016/10/arrosa-ala-urdin-sexu-genero-sistema.html>

<http://www.educandoenigualdad.es/>

Diversidad LGTBI y coeducación. Recursos didácticos, teoría y experiencias

<https://diversidadycoeducacion.com/tag/infantil/>

► Beste hainbat blog

KINKA. <https://abarquin.wordpress.com/>

IGLU: iniciativas gay/les uni/diversitarias. <http://iglu-biblioteca.blogspot.com.es/>

Diversidades familiar y afectivo-sexual. <http://diversidadafectivosexual.blogspot.com.es/>

LA MOCHILA DEL ARCO IRIS: <http://www.blog.amayapadilla.com>

► Tutoretzak

Tutorías LGTBI+H: <http://tutoriaglb.blogspot.com.es/>

Tutoría LGTB del Instituto Duque de Rivas:

<http://www.felgtb.org/temas/educacion/enlaces/i/248/312/tutoria-lgtb-del-instituto-duque-de-rivas>

► Ipuinak

Datruelo: <http://www.lrmcdii.org/wp-content/uploads/2012/05/Datruelo-cuentosparaantesdedespertar2.pdf>

Hainbat ipuin:

<https://abarquin.wordpress.com/2017/01/09/umeak-generoa-eta-transexualitatea-bost-ipuin-argitaratu-berri/>

Sali y el mundo de colores. <http://www.trabe.org/es/sali-y-el-mundo-de-colores/>

Baliabideak

Aniztasun afektibo sexuala eta genero aniztasuna lantzeko unitate didaktikoak. **Steilas**.

<http://steilas.es/category/gaiak/igtbi/>

Material didaktikoa: aniztasun sexuala eta familia berriak... Eskola oraintazio sexualaren aurrean. Lanketarako koadernoak.

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/escuela_diversidad/es_bullying/adjuntos/MATERIALES%20EDUCATIVOS%20DE%20CONTENIDO%20GLBT.pdf

Emoziotegia. Esan zer sentitzen duzun.

Baloretan hezteko 60 film-labur

<http://www.educaciontrespuntocero.com/recursos/familias-2/cortometrajes-educar-en-valores/16455.html>

Komikia: DESExO

<http://cjn-ngk.org/wp-content/uploads/2016/02/DESExO-Historias-sobre-Sexualidad.pdf>

Familias de colores.

<http://felgtb.com/educacion/FamiliasColores/#/1/>

Diversidad sexual en la Educación Primaria. Actitudes y análisis de recursos. Celia España.

<https://repositorio.unican.es/xmlui/bitstream/handle/10902/6868/Espa%C3%B1aChicoCelia.pdf?sequence=1>

Atención a la diversidad afectivo-sexual en el Sistema Educativo: desde la Educación Infantil hasta la formación del profesorado. Mercedes Sanchez.

http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/2_1466_1.ppt

Escuelas libres de violencias machistas. Kika Fumero, Marian Moreno y Carmen Ruiz. ISBN 978-84-8384-341-

Unitate didaktikoak



materialea euskaraz eskuratzeko

www.steilas.es/arloak/igtbi

Guia per treballar la diversitat afectiva, sexual i de gènere (cat)

www.sindicat.net/dona/

Sexu eta genero
aniztasunaren alde

HEZKIDETZA da bidea



Gizon eta emakumeen artean
aukera berdintasuna lantzeko tresnak.

Hainbat unitate didaktiko Martxoaren 8a eta Azaroaren 25aren inguruan neska eta emakumeen eskubideak eta indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko asmoz.

Euskararen Komunikazio inklusiborako gida

- Erabilpen androzentrikoak eta hori saihesteko gomendioak
- Erabilera sexistak nola saihestu
- Komunikaziorako aldagaiak.
- Irudi-bidezko komunikazioa.



Unitate didaktikoak



materialak euskaraz eskuratzeko www.steilas.eu/arloak/emakumea



www.steilas.eus